

Gutuna Patxi Lopezi, Euskadiko Alderdi Sozialistaren idazkariari:

Hartara bultzatzen gaituzten arren, saihets egin behar diogu enfrentamenduari!

Eusko Jaurlaritzako hauteskunderen ondoren, PPK, Rosa Diezek, "hedabideen Bruneteak" eta frankismoaren ustelkeriak enfrentamendu basati batera eraman nahi gaituzte. Patxi Lopezi eta Alderdi Sozialistari haien programa inposatu nahi diete. Euskadi osoa Lizartza moduko bat izatea nahi dute: Udalbatza elkartzen da herria guardia zibilek inbadituta dagoela.

Argi dago Euskal Herriko sektore abertzale batzuk prestatzen ari direla Euskal Herria urratuko lukeen buruz buruko baterako.

Euskadiko langile eta gazteek ez dugu halakorik nahi. Ez dugu nahi euskaldunen arteko enfrentamendu konponezinik. Bizi garen krisialdi ekonomiko larrian, abertzaleek eta abertzale ez garenek nahi dugu bai Madrilgo bai Gasteizko gobernuek defenda ditzatela bakea, demokrazia eta lan egiteko eskubidea, despido oldearen eta erregulazio espedienteen aurka. Egoerak langileoi inoiz baino batuago egoteko eskatzen digunean, PPK, Rosa Diezek eta haien sokakoek bilatzen duten enfrentamenduak kalte handia egingo die euskal langileei eta herriari.

PPK inposatu zituen neurriok —Alderdien Legeak, kandidaturak debekatzeak— oso egoera zailera eraman gaituzte.

Gauzak horrela, Alderdi Sozialistaren idazkari nagusiak erantzukizun handia ez ezik, aukera paregabea dauka. Patxi Lopez hauteskundeetara aurkeztu zen frentismoarekin amaitzeko borondatea aldarrikatzen zuen programa bat eskuan zuela. Hainbat aldetatik Alderdi Sozialistaren eta haren militanteen edo lokalen aurka egindako erasoek konpromiso hori betetzea oztopatu nahi dute.

Gutun hau sinatzen dugun Euskadiko langile, emakume eta gazteek Patxi Lopez kideari ondokoak eskatzen dizkiogu: euskaldunen arteko elkarbizitzaren etsaien inposiziorik ez onartzeko, euskaldunen arteko enfrentamendua gaindituko duen gobernu baten alde lan egiteko —indar eta hautagaitza politiko guztientzako askatasunaren bidez—, Alderdien legea derogatzeko eta langileen kaleratzeen aurka borrokatzeko eta enplegua erregulatzeko espedienteak debekatzeko, milaka euskaldun miseria gorrian uzten dituztelako.

Nombre y apellidos / DNI	Firma	Dirección o correo electrónico	Apoyo económico
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			

La dirección o correo electrónico se utilizarán sólo para enviar información de esta campaña. No se entregarán a nadie.

INFORMACIÓN OBRERA
Tribuna libre de la lucha de clases

Puedes enviarnos las firmas o ponerte en contacto con nosotros en:
Calle Aita Larramendi 3, entreplanta. 48012 Bilbao
io@informacionobrero.org - <http://www.informacionobrero.org>

Nombre y apellidos / DNI	Firma	Dirección o correo electrónico	Apoyo económico
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			
DNI:			

La dirección o correo electrónico se utilizarán sólo para enviar información de esta campaña. No se entregarán a nadie.